

2024-2027 LANDA GARAPEN PROGRAMA:

Urkomek, Eskualdeko Landa Garapen programa berria lantzeko prozesua hasi du.

“Bottom up” partaidetza dinamika duen metodologia bateratua erabiliko da horretarako.

Guztion parte hartzea funtsezkoa izango da programa aberatsa bezain emankorra lortzeko.



TREBATU PROIEKTUA:



Trebatuk irtenbidea eman nahi dio lehen sektorean dagoen belaunaldi-errelebo faltari. Urriak 10ean Bergarako Bolu Barri baserrian egin zen programaren aurkezpen ekitaldia.

Lehen edizio honetan, zazpi Trebalari daude lanean Gipuzkoako hainbat Trebatze gunetan. Ekintzaile horiek azpisektore ezberdinetara zuzentzen diren proiektuak dituzte: haragitarako behiak, esnetarako behiak, lore ekologikoen ekoizpena, hegazti-hazkuntza, frutagintza eta baratzezaintza.

Informazio gehiago: www.trebatu.eus

Trebalari izan nahi baduzu edo Trebatze gune bat eskeini, jar zaitetz gurekin harremanetan.

KARPEN EROSKETA:

Urkomek dituen karpn erabilera handia eta hauen egoera hobetze aldera 12 karpa berri erosi dira.

Honetarako Gipuzkoako Foru aldundiko landa garapeneko proiektuetarako dirulaguntza programatik %65ko dirulaguntza lortu da.



ARTILEA:

Aurtengo artile bilketa urrian hasi eta azaroan amaituko da.

Landaolatik antolatu da, Abegur eta Lurgintzarekin elkarlanean eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin.

Artilearen balorizazioarekin jarraitzen dugu, hainbat proiektutan kolaboratuz: **Ardi Beltza, KERAFILM...**

ARTILE BILKETA 2024					
Interesdunek deitu: 696 433 602					
EGUNA	LEKUA	ARTALDEA	KOSTUA (BEZ BARNE)	ARTALDEA	KOSTUA (BEZ BARNE)
URRIAK 14	IDIAZABAL	1-50	39,44	301-350	197,23
URRIAK 16	AZPEITIA	51-100	65,78	351-400	223,52
URRIAK 21	ASTEASU	101-150	92,07	401-500	276,10
URRIAK 28	OIARTZUN	151-200	118,36	501-600	328,73
URRIAK 30	BERASTEGI	201-250	144,65	601-700	381,32
AZAROAK 4	ELGOIBAR	251-300	170,94	701 <	434,67
AZAROAK 6	ONATI				

CAJA RURAL ESSO 3008 0152 6549 2039 5821
Kontzeptua: IZEN ABIZENAK-BASERRIA



UDAKO IKASTAROAK:

Irailak 27an Zaldibiko Goizane zentroan presentzialki eta online ere jarraitzeko aukera izan zen 2024ko udako ikastaroa "BERTAKO PRODUKTUEN EZAGUTZA ETA HAUEN KONTSUMOA BULTZATZEA" ospatu zen.

"ELIKADURA OSASUNGARRI ETA JASANGARRIA SUSTATZEKO TRESNAK" Arantza Madariaga-ren (ELIKA Fundazioko zuzendaria) eta "BARAZKIEN KONTSUMOA GIPUZKOAN" Leire Vega-ren (Prosumerlab-eko ikerketa arduraduna) ponentziak izan ziren lehenik eta ondoren mahai inguru bat egon zen Leire Arandia (D'Elikatuz), Maite Otaño (GILBE), Ainhoa Lete (Bergarako zinegotzia), Xabier Aldalur (Bertan merkatarien elkarte) eta Mikel Ayala (Prosumerlab) artean.

Saioa Landaolako Youtube kanalean dago ikusgai:

<https://www.youtube.com/watch?v=KnjaffGnjkw&t=4061s>

[v=KnjaffGnjkw&t=4061s](https://www.youtube.com/watch?v=KnjaffGnjkw&t=4061s)



MALAGA ETA KOLONBIATIK BISITAK:

Malagako Landa Garapeneko zazpi talderen ordezkartza bat eta "Costa del Sol"eko Turismo eta Plangintzako bi ordezkari gurekin izan dira.

Urtebeteren ostean Kolonbiako Cauca departamentuko Erakunde Komunitarioen Plataformako kideak izan dira berriro Elikagunea eta Urkomeko ezagutza handitu eta proiektu amankomunak sortzeko..



[Urkome Urola Kostako Lge](#)



[urkome](#)



urkome@urkome.eus



[@urolakosta](#)



[@urkome_lge](#)



www.urkome.eus



943816500

Plaza Nagusia, 11-1.solairua, 5.bulegoa
20730, Azpeitia